



Europar Batasunak
kofinantzatuta
Cofinanciado por
la Unión Europea



ARRASATEKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE MONDRAGÓN

ALDIBATERAKO KONTRATAZIOA

Lanbidek eta Europar Batasunak, Euskal Autonomia Erkidegoko EGF Plus 2021-2027 Programaren esparruan, gazte langabeak kontratatzeke deialdi hau finantziatuko dute

1/ KONTRATAZIOA

LANPOSTUA	PROIEKTUA	JARDUNA	IRAUPENA
Hirigintza Teknikaria	HAPO berria abiatzeko aurretiazko analisiak.	% 100	12 hilabete

2/ KONTRATATZEKO BALDINTZAK

▪ Baldintza orokorrak

- a) Kontratuak 2024ko irailaren 6a baino lehenago formalizatu behar dira.
- b) Onura publikoko edo interes sozialeko jardueren alorrean egin behar dira, toki-eremuan.
- c) Kontratazio horien bidez ez dira ordeztu behar erakunderen baten egiturazko lana egiten duten langileak.
- d) Kontratu horiek 8 edo 12 hilabeteko iraupena izan behar dute, eta enplegu-politika aktiboko programei loturiko kontratuen bidez formalizatuko dira (405 kontratu-kodea)
- e) Lanaldi osoko kontratuak izan behar dira.
- f) Kontratutako pertsonak bere kualifikazio-mailari dagokion lanpostu bat bete behar du.
- g) Kontratutako gazteek baldintza hauek bete behar dituzte:
 - 16 urte baino gehiago eta 30 baino gutxiago izatea.
 - Ez izatea 2023ko ekitaldian gazteak kontratatzeke laguntzen deialdietan kontratatutako pertsonak edo enplegua sustatzeko tokiko ekintzetarako laguntzen deialdietan kontratatutakoak.
 - Enplegu eskatzaile izan behar dute, alta egoeran, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuan, eta bete behar duten lanpostuari dagokion hezkuntza maila izan behar dute.
 - Gazteen Bermerako Sistemaren Fitxategian inskribatuta egotea, kontratazioari eta ekintzaitzari laguntzeko jarduketara baterako hautatua izateko, onuradun izatea 18/2014 Legean xedatutakoaren arabera.
- h) Lehentasun ordena hau beteko du toki-erakundeak hautaketa prozesuan:
 1. Arrasaten erroldatutako gazteak.
 2. DBE-BGDS prestazioaren titularrak edo onuradunak.
 3. 30 urteko adinetik gertuen dauden pertsonak.
 4. Baldintzak betetzen dituzten gainerako gazteak.



Europar Batasunak
kofinantzatuta
Cofinanciado por
la Unión Europea



lanbide
EUSKAL ENPLEGU ZERBITZUA
SERVICIO VASCO DE EMPLEO



ARRASATEKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE MONDRAGÓN

- i) Ez dira diruz lagunduko azkendutako kontratuen ordezkapenekoak, horien arrazoiak edozein direlarik ere.
- **Baldintza bereziak**
 - Titulua: Unibertsitateko Graduduna izan beharko da, honakoen artekoa:
 - Adimen artifiziala
 - Arkitektura teknikoa
 - Arkitekturaren oinarriak
 - Ekonomia
 - Energia berriztagarrien ingeniarietza
 - Enpresen administrazio eta zuzendaritza
 - Geografia eta lurralde antolakuntza
 - Gizarte antropologia
 - Ingeniarietza zibila
 - Ingurumen ingeniarietza
 - Ingurumen zientziak
 - Matematika
 - Negozioen kudeaketa
 - Politika zientziak eta kudeaketa publikoa
 - Prozesu eta produktuen berrikuntzaren ingeniarietza
 - Soziologia
 - Zerga sistema eta administrazio publikoa
 - Zuzenbidea
 - Euskara: 3. Hizkuntz-eskakizuna gutxienik egiaztatzea (agiriz).

3/ HAUTAGAIEN AURRETIKO AUKERAKETA

LANBIDEk egingo du hautagaien aurretiko aukeraketa, ezarritako baldintzen arabera

4/ HAUTAGAIEN AZKEN AUKERAKETA

Hautagaien azken aukeraketa Udalak egingo du, egokitasun probak eginez eranskinean jasotakoaren arabera. Bete behar den lehentasun ordena kontuan izanda, lehenik eta behin Arrasateko hautagaiak deituko dira probak egitera, baldin eta gutxieneko hautagai kopurua balego.

5/ EPAIMAHAIA

Hautaketa prozesuko kalifikazio epaimahaia honela eratuko da:

Epaimahaiburua:

- Udal teknikari bat.

Epaimahaikideak:

- Postuari dagokion arloko teknikari bat.
- Postuari dagokion arloko karrerako funtzionario bat.
- Udal funtzionario bat, ordezkarietza sindikalak proposatuta.

Idazkaria:



Europar Batasunak
kofinantzatuta
Cofinanciado por
la Unión Europea



Lanbide
EUSKAL ENPLEGU ZERBITZUA
SERVICIO VASCO DE EMPLEO



ARRASATEKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE MONDRAGÓN

- Udal funtzionario bat.

6/ INFORMAZIOA ETA KONTSULTAK

Deialdi honi buruz Udalak hartzen dituen erabakiak (oharrak, aurrez aukeratutako izangaien zerrenda, azterketak edo elkarrizketak egiteko deialdiak, hautaketa proben emaitzak, eta abar) udaleko web orrian argitaratuko ditu (www.arrasate.eus) eta interesdunen eskura jarriko ditu BAZen, Biztanleentzako Arreta Zerbitzuan.

Deialdi honi buruz interesdunek behar duten edozein informazio osagarri jasotzeko, hona jo dezakete:

- **BAZ (Biztanleentzako Arreta Zerbitzua)**
 - Arano eta Gartzia maisu-maistra 8
 - Tel.: 943 252000
 - baz@arrasate.eus

7/ HAUTAKETA ARAUAK

- **Probak**
 - *Praktikoa*: 0-35 puntura baloratuko da eta gutxienez 17,5 atera behar da aurrera egiteko.
 - *Elkarrizketa*: 0tik 15 puntu arteko balorazioa izango du, eta gutxienez 7,5 puntu lortu behar dira .